

Artzain Iratin berrogei urtez

E.: xu plantatu xira, beraz, xure kondu mila beatzieun ta hiutan oita lau-bosta inguru ortan?

B.: ba, olako zeait, ba, ba.

E.: ez duxu sekula pentsatu beste ofizio bati? Xuretako artzaingoa zuxun.

B.: ta ba, ttipitik ala ikasiak, eta zeait in bear ginien, zeait in bear ginien, ta olaxe.

E.: ordian nola hasi xira plantatzen, ardi batzu xuaundako erosiz?

B.: ba, ba, ba, oh, ez eunka, eh! Zazpi, zortzi, amar, eta olaxe, (...) eta hetan bildots zombait hazi, ta ez baiginien sosik erosteko, mutil irabazi puxka oriek, ez ginen ordian ostatura joaiten, ez ginien bear igorri sosa, atxiki, ta eekilan ardi zombaiten sosa in, ta olaxe, ta gero, primaderan iten zen, goiti jin-eta, ez baitzien oai bezain goizik erditzen, iten zen gasna puxka at, ta hua, hua re ba, gasna zombait saldu, ta...

E.: ta emeki-emeki ardi buru-beltz tropa muntatu.

B.: ba, ba, emeki-emeki ba.

E.: orduan duela berroita hamar bat urte hasi xirelarik artzain, oono denak oinez egiten zitxun?

B.: ah ba, astoaikin, ordian emen denek, etxola otan den-denek astoak, emen egoiten zien zelai otan astoak elgarrekin, ta gero amost egunetaik joaiten beeiti, taloak iteko irinain xeka, xingarra, ta puskak falta zienak ekartzen, amost egunetaik astoaikin joaiten zien artzaiñak beeiti, ementik ez dakit zombait dien, amairu kilometra bazen xuxenian bidez, bena oai bidez geixeo, hamazazpi-emezortzi kilometrako at, bide itzuli oriekin, berdin ats batetako joan, eta biamunian parti berriz goiti, gauzak in, ta hartu, ta... Gero in dira gure denboran bide hok. Lenik asi zien orik, Jeep-ak, eta geo, Jeep-a zombaitekin gero karraazten gintien emen zerak ogiak eta zenbait Jeep-adun batek kartzen zauzkiun, geo larrazkenian paatzen ginien ua transporta, nik uste gauzek bano geio artzen zaun hak berriz. Ara, gure bizitzia ola izan da.

E.: eta etxolan bakarrik egoiten zinezten zuen artaldearekin.

B.: ah ba, ba.

E.: bakartasuna ta ortaz sofritu duzii?

B.: bon, badira bakarrik zienak, bakarrik egoiten zienak, bana guk hemen beti, bizpalau etxola otan beti bazen, elgarrekin ginen emen, ez ginen galdiak gu, emen bazen. Bena hor goi... Beste bortu batzutan bazen, badira bakar... Bakarrik dienak, urrun etxolak. Ba, gure manera ola zen.

E.: ta sofritzen zen bakartasuna?

B.: ez, ez, usatzen da, gu bezala, ez baiginen hirian usatiak gu, usatzen da.

E.: eta kozina egiten, eta xuietak bakarrik egiten...

B.: ordian ba, ordian ba, kozinain iten kasia nin nik arrunt gazte-gaztetik, aitaekilan, bortian, ta salda iten eta denak, hak erran, ta inaazten zauzkun, ta ikasi, ala. Bon, kozinain iteko ez nintzan ez jenatia, ez.

E.: eta arzainek, bakotxak bere etxola bazuen?

B.: ba, hemen ba, hemen ola da, artzain bakotxak badu bere etxola, salbu ortxe Zurtzain badira hiru etxe partia utenak, iru etxetakoek kartzen zuzten ardiak, orik liferentzia, beste otan bederazka. Aldiz, Xuberan badira hamar etxe partia utenak etxol batian. Hek egiten dute aldizka, ek ukan dute aldizka, biga aste huntan, eta beste biga jiten zien beste etxetakoak beste astia ola itzulua. Ta geo berriz asten zien lemizi pasatu ek, Hango moda ola zen. Oai nik uste orik e kanbiatia uten: eldu dira otoz, ez da bate leen bezala oriena re, bena nik ezautu ut oriek nola iten zuten leeno: aldian biga beti. Bi etxetakoek bazuzten beren ardiak, hek aste bat iten zuten, ta beste biga, beste bi etxe jinen zien, hek etxeat, denak pastu artio, ta geo berriz asten zien lemiziko pastu ek, ola iten zuten uda, itzulian.

E.: eta Garaziko bortuetako etxola hauek guziak noiztsu eginak dira, noiztsu eginak izan dira?

B.: ba, emen bazien biga aspaldikoak, aspaldikoak zienak, leemizikoak biga zien emen, geo beste hok, oai hor baita ori berri ori, orren pekaldian bazen xahar bat, hori leemizikoa, ta gero bestia emen ezkerreko aldian beita beste bat, horik biak zien. Gero oaiko zer ori Pettan, Libet erten zakotan, hak in zien etxola berria, ba ni sortu nintzan urthian nik uste, ta geo gure anaia hau in zien berriz, beanto, ta olaxe.

E.: eta nola pasatzen zen? Baimena galdegin bear zen Garaziko sindikatari?

B.: bai.

E.: lurak Garaziko sindikatarenak dira.

B.: ah ba, etxola guria da, puska guziak, bear tuu emen utzi, sekula bear balin bada gelditu, bear dira harriak eta lurra hor bear da utzi. Bestiak eremaiten tu, orik guziak guriak dira. Legia ola da. Sindikatian galditen zen unenbeste etxolain lekia, ez dakit zonbat metra carré den, ta orik guziak... Gu sindikateko lurrian gira, etxola au gure lurrian dira.

E.: sindikataren lurrian dira.

B.: ba, ba, ba.

E.: eta murrak zienak dira?

B.: harriak bildiak uretik, orik emengoak dira, hor bear dira utzi orik e, ta tola, ta beste estalgi ta oriek e, ordian denbora etan ez baitzen bideik, oiantzaiñari erosten zien, ori, gapirioak eta nola erten da, zur oriek, oianian eros-eta pikatu ta lantu ta prepaatzen ta ola, ta beste arbole, pago-ondo at ederra erosten zen leuna, haekin iten zen oola, ohola iten zen taula ttipika, ta hek itzatzen aterbiain iteko, leenbiziko ek ala ziren, gero kanbiatu du, hain gaiñ hoitan e zahartziaikin iten baitira itaxurak, eta ordian, gero zarri ginin gaiñetik tola, ara.

E.: hastapenian etxolan bakarrik...

B.: ba, ba, ba.

E.: lo egiteko ta jateko lekua zen.

B.: dena, dena.

E.: bizitegia zen.

B.: ba, ttipi bat, ttipi bat.

E.: gero emeki-emeki egin da gasnategia.

B.: geo giilian ba hor haunditu geo, gero aunditu ba.

E.: eta hori etxola gehienetan.

B.: gasnategia, ta egurrendako ta aterbia haunditu duzte geo bidiak-eta itiaikin, gauzen ekartzeko xantza jin delaik, ba.

E.: eta zuen gasna egiteko puska guziak-eta barnean atxikitzen zinituzten.

B.: ah ba, ba, ba, denak barnian, ba, oriek denak ekartzen zien astoan, goiti jitian, matalaz ttipi bat eta miisiak eta mantak eta denak kartzen zien goiti, emen ez zen deus e uzten negian, denak eremaiten beitzuzten, eta xeatzen, eta ola, ordian, maiatzian, ez dakit zoin egunez jiten ginen, atsarrarian goiti, astoa kargatuik, ta zonbait aldi euri erauntsi at ukaiten bidian, matalazak eta denak bustiak, ta atsian an bear zen lo in. Oai ez dakit gazte atzuri ola erran bear litekenez, ara.

E.: eta gasnen iteko puskak zer ziren? Bertza...

B.: bertza, kobrezko bertza, eta geo delako gasna iteko horiek, mula oriek, xortxiak eta xortxepekoa ta ola.

E.: eta moztekoa, gasnain mozteko...

B.: ba ori...

E.: makila, ta...

B.: gasna... Kallatiain iteko ori etxean iten gintin guaurek, gorosti batetaik, adarrak bildu ta xetzeko iten ginien. Ba ut hor baño, xahartia da ba ni bezala, bana eakutsiko dauziet.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala